

Arrasate

P R E S S

1997ko
ekainak 27
369. zenb.

Akabo San Juanak!

Joan zaigu San Juan. Asko eta asko penaz jaiak bukatu direlako... bueno, datorren urterako gutxiago falta da.






VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ■ Tel.: 79 78 10 ■ ARRASATE
Ibargarai, 24 ■ Tel.: 76 12 21 ■ BERGARA

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.



Udako ikastaroak eta errekupeazio ikastaroak

ALEMANA • INGELESA • FRANTSESA

Eta gainera gure **Mediateka** zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. **DOHAINIK.**

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tel.: 71 20 55

Olakua, 14
OÑATI
Tel.: 71 60 00

Bukatu da liga!

Aste honetako informazio guztietan entzun eta ikusi dugu albiste hau: denboraldi honetako liga bukatu da.

Asteburuz asteburu, bederatzi hilabetetan, aditu eta afizionatu guztiek ez dute besterik izan buruan: ea nire ekipoak irabazten duen, ea nola gelditzen den sailkapen nagusian... Real eta Athletic-a dira hurbilen geratzen zaizkigunak ligako ekipoei dagokienez, baina ezin dezakegu ahaztu, beste kategoria eta txapelketetan parte hartu duten herriko ekipoak: Zaldibarko txapelketan, Mondra, nesken



Rosa Mondragon

“Ez naiz futbol zalea, baina zale izan edo ez izan ebitatu ezina da futbol giroa”

taldea....

Aitortu beharra daukat: ez naiz futbol zalea. Baina zale izan edo ez izan ebitatu ezina da futbol giroa, egunkari, aldizkari, irrati eta telebistako informatiboetan gaiak izaten duen ohiartzunarengatik, jarraitzaile ez garenok ere liga, UEFA, errege kopa eta horrelakotaz piska bat enteratzen gara, piska bat enteratzera behartzen gaituzte.

Egia esan, aspertzen hasita nengoen, batez ere telebistan kirol honek betetzen duen denboragatik, gehiegi nire ustez. Gogoratu, bestela, kate batean ez bazen, bestean egunero

botatzen zutela partiduren bat azken bolada honetan. Azken hori kontuan hartuz, liga bukatu bada ere, oraindik hemendik aurrera izango dira beste txapelketaren batzuk edo lagunen arteko partiduak edo ez dakit zein finalen errepikapenak... telebistan jarraituko dute seguruenik futbol emanaldiak.

Beraz, kirol horren jarraitzaile zareten horiek lasai egon, izango duzue eta nahi adina futbol ikusteko aukera (nahiz eta ilusioa eta pasioa ez izan berdinak). Hainbeste gustatzen ez zaigunontzat, berriz, etxekoekin eztabaidatzen jarraitzea gelditzen zaigu, telebistako urruneko mandoa hartu eta ea telebista katez aldatzea lortzen dugun.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-
do Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubii-
llaga, Marian Porcel. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea
Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube
(Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Gogo Arana. **Kolabora-
tzaleak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del
Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agi-
rreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel
Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Sabin Arrie-
ta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren,
Fidel Beretzbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arra-
buru, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Aelgarraga, Jesus
Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Kabier
Letona, Karmelo Perez, Kogi, Jon Ozaeta, Virginia Urkio-
la, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduradu-
na:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRA-
SATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:**
1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua.
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).
ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azala: Gogo Arana.

Arrasateko Udaleraren
laguntza

Gipuzkoako Foru
Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntza

369. zenbaki honetan 1997ko ekainaren 27an

| | | | | | |
|----------------------|-------------|--------------------|-----------|-------------------|--------------|
| Asteko agenda..... | 4/5 | Inkesta..... | 18 | Azoka plaza..... | 20/21 |
| Jaiek errepasoa | 6/17 | 30 galderetan..... | 19 | Fotozaharra | 22 |

Ikuspegia
Rosa Mondragon **3**

Hogeita hamar galderetan
Yolanda Sagarna **19**

Memesa

79 42 22

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Mari Jose

OINETAKOAK

Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 79 22 98

27

ostirala

■ ZINEA

El quinto elemento. Alai zinema 7etan eta 10etan.

■ SQUASH TXAPELKETA

Arratsaldeko 7etan Squash txapelketako Euskadiko ligaren partiduak Musakolako kiroldegian.

■ ESKORIATZAKO JAIK

Arratsaldeko 8.30etan Naroa Enekotegiren kontzertua San Pedro elizan. 10etan EGAN taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

28

larunbata

■ ZINEA

El quinto elemento. Alai zinema 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ GAY ETA LESBIANEN EGUNA

■ SQUASH TXAPELKETA

Musakolako kiroldegian Squash txapelketako finalak arratsaldeko 5etatik aurrera.

■ XAKE EGUNA

Arratsaldeko 4.30etan aldi bereko xake txapelketa eta partida azkarren txapelketa Herriko plazan.

■ CC. 00 EZKER SINDIKATUA

Langile Batzordeetako Ezker sindikalaren kideek gose grebari bukaera emango diote arratsaldeko 6etan. Ordu horretarako herritar guztiak gonbidatu dituzte Herriko plazan egingo duten kontzentrazioa.

■ ESKORIATZAKO JAIK

Arratsaldeko 4etan Goiti-behera jeitsiera Apotzatik. 7etan buruhandiak. 7.30etan Parrokian Salbea. 8.30etan Copacabana taldearekin dantzaldia Herriko plazan. 10etan tanborrada. Ondoren suzko erruberak. 11etan Rock kontzertua frontoian. Taldeak: *Ekom, Brutal Melody* eta *Piperak*.

29

igandea

■ ZINEA

El quinto elemento. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ EMAKUMEZKOEN MUS TXAPELKETA

Arratsaldeko 4etan Emakumezkoen mus txapelketa Jokin Zaitegi plazan.

■ ESKORIATZAKO JAIK


Eguerdiko 12etan Meza. 1.15etan bandaren kontzertua. 5.30etan herri kirolak frontoian. 8etan Gorosarri dantza taldearen emanaldia. 10.30etan dantzaldia.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

ARTEA
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE



MIKEL LASA, S.A.

aseguru artekaritza

ASEGURU OROKORREN AGENTZIA

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakusten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ

BANKINER

A G E N T E A

FINANTZA PRODUKTUAK

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakinerako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

HIPOTEKA MAILEGUAK

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 79 69 00 Faxa: (943) 77 10 74

30

astelehena

■ ZINEA

El quinto elemento. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ESKORIATZAKO JAIK

Goizeko 10etan txirringulari lasterketa. 2etan herri bazkaria. 4.30etan umeentzat jaialdia. 7.30etan umeen tanborrada. 10.30etan *Maixa eta Xiarrekin* dantzaldia.

1

asteartea

■ ZINEA

El quinto elemento. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ ESKORIATZAKO JAIK

Goizeko 9.30etan II makailau lehiaketa Herriko plazan. 10.30etan xake, dama eta partxis txapelketak. 11.30etan *Los biznietos de Celedon* txaranga. 2etan herri bazkaria. Gaueko 10etan *Trabuko* taldearen dantzaldia.

■ **ANTZERKIA AMAIAN**
Uztailaren 4an, ostirala *Gaztegay* taldearen *La matanza* antzezlanaren Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

■ **ERREMINTEN MEKANIZAZIO ETA FABRIKAZIOARI BURUZKO IKASTAROA**
Ikastaroa profesionalki gaitu gabeko langabetuei eta langabezia denbora luzea daramatenei zuzenduta dago, batez ere IEE, BBB, LH-1 eta LH-2-Ko ikasketak egin dituztenei. Izena emateko Aretxabaletako Institutora zuzendu behar uztailaren 11a arte. Ikastaroa irailaren batean hasiko da, 500 orduko iraupena du eta arratsaldean emango da. (Tel.: 79 79 00).

■ **XAKE EGUNA**
Arratsaldeko 4etan hasita

bi xake txapelketa izango dira Herriko plazan. Aldi bereko txapelketan Jesus Berezibarrek 25 lagunen eta ordenagailu baten aurka neurtuko ditu indarrak. Ordenagailua Arrasateko Beep enpresak utzi du eta Fritz 4 programa da. Partidak ikusteko pantaila erraldoia jarriko da Plazan. Partida azkarren txapelketan Arrasateko 8 jokalarik Bergarako beste zortziren kontra jokatuko dute.

■ **PINTURA ERAKUSKETA**
Famili eta Gizarte Hezketa-rako zentruak antolatutako aire libreko pintura lehiaketako erakusketa Monterronen ekaineran 30a arte. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jai egunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktoa

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Jai ostean zatoz TAKOLOra hemen jarraitzen dugu eta!



FRONTERA

VECTRA

ASTRA

OPEL

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86

San Juanak

Aurtengoz... nahikoa!

Lau egun besterik ez dira izan, baina asko eta askorentzat nahikoa izaten da hori, jaietako martxan zaila delako gorputza gehiago behartzea. Ekintzaz betetako egunak izan dira. Beti moduan, batzuk lortu dute jendea erakartzea baina beste batzuk ez dute arrakastarik izan, nahiz eta antolakuntza aldetik egin beharreko guztia eginda egon. Balantzea, kopuruetan sartu barik, ezin da txarra izan, gauza gehienak gutxi gorabehera aurrez pentsatuta zeuden moduan irten dira eta. Dena dela, ez da balantzearena Arrasate Pressen lana. Jaiak zer eman duten erakustea, horixe gure helburua; alde batetik, herritik kanpo egon direnak zer galdu duten ikuz dezaten; bestetik, gauez ibili denak egunez zer egon den ikus dezan, eta alderantziz. Horretarako, joan den ostiraletik gaur arte ateratako argazkien bilduma eta menua duzue ondorengo orrialdetan. Goza dezazuela!



Perkutsio talde honek animatu zituen plazako arkupeak tanborrekin eta marak...



Galeperrei tiroka

San Kristobal kanposantu inguruan hainbat ehiztari tiroka aritu zen zapatu goizean. Galeperrei egiten zieten tiro, bakoitzari gutxienez bi tiro. Irabazleendako sariak ere izan ziren.

Aldi/bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

OSTARKU

ORAIN DISKOTEKA OSOA DOHAN ALOKA DEZAKEZU!

- Ezkontza osteko jaiak
- Despedidak
- Ikasleen afari eta jaialdia

Animatu eta deitu! Tel.: 77 03 17

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



Intsumisoen menua; marmitakoa. Bazkalordurako musika, berriz, irlandarra.

LARUNBATA
21



24 lagun aritu ziren margotzen. Horietatik 11 arrasatearrak.



San Juan pilota txapelketako irabazle batzuk.

Intsumisoak eta margolariak kalearen jabe

Larunbatean intsumiso eguna ospatu zen. Goizean kalejira, eta arratsaldean musika eta antzerkia izan ziren.

Margolariak ere jo eta ke aritu ziren. Aire zabaleko XVI. pintura lehiaketa egin zen eta lehenengo hiru sariak hauek jaso zituzten: Andres de Pradok, Jose Zubiaurrek eta Eluska Zabalok. Arrasatearrei ematen zaizkien sariak, berriz, Kontxita Zarraoak eta Gorka Zubizarretak.

CCOOkoak gose greban

Larunbat arratsaldean gose greba hasi zuten CCOO sindikatuko kideek Udaletxeko pleno aretoan. Sindikatu horretako Ezker Sindikalista korronteko 12 kide egingo dute astebeteko baraualdia. Senideen ekimenez, 95eko abenduan hasi zen txandakako gose greba dela eta egin dute gose greba.

- Zer dela eta gose greba?


- Senideak elkartek eskatu zion sindikatuari ea txandakako gose greban parte hartu nahi genuen. Baietz erantzun eta San Juanetako astean egitea tokatu zaigu. Kasualitatez izan da, baina baita nafarrek ezin zutelako parte hartu uztailean izango balitz. Ondoren, guk geuk erabaki genuen Arrasaten egitea.

- Zer eskatzeko?

- Senideek eskatzen dutena, euskal presoen Euskal Herriratzea. Bestalde gobernuari legedia bete dezala exigitu nahi diogu.

- Zergatik Udaletxean?

- Aldarrikapen hauek tarako toki egokiena dela iruditzen zaigulako



Juan Ramon Garai

IGANDEA
22

Euskal Herriko txapelketa

Hemeretzi goitibeherak parte hartu zuen E.H.ko III. Goitibehera Txapelketa. Txapela Añorgara eta Lasartera Joan zen: Andoni Anabitarte eta Mikel Soroa izan ziren txapeldu-nak.

Danel Goikoleak eta Aner Arregik originaltasunaren saria irabazi zuten.



Aurtengo irabazleetariko bat.

Salmonetea buztan eta guzti

Iaz dragoian, eta aurtan salmonetean jeitsi zuten Udala Anerrek eta Danelek. Entrenatzen ez, baina goitibehera prestatzen pasatzen dute denbora bi lagunek.



XXVIII. Derioko Udako Euskal Ikastaroa

1997ko ekainaren 30etik uztailaren 12ra

Mintzabidea

Alfabetatzeko mailak

- Oinarriko mailak: I,II,III
- Goi-mailak: IV-V

EGA maila

Ikastaro bereziak

- Itzulpena I-II
- Euskal Musika eta Dantza: I-II
- Euskal Hizkuntzalaritza
- Euskara Eskolan (Didaktika)

LABAYRU IKASTEGIA


Aretxabaleta, 1
68010 BILBO

Tel: 94 443 76 84

E-mail: labayr01 sarenet.es

Kontzeziñoko kurban...

une arriskutsuenak bizi izan ziren. Zorionez ez zen istripu larririk izan. Hori bai, partaide batek streep tease egin zuen. Itxura denez, kurba hartzean jausi eta prakak jeitsi zitzaizkion. Mutila gantzontzilotan geratu zen!



DISCOPOLIS

KONPAK DISKAK • KASETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behea • ARRASATE
Tel.: 77 02 13

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



Haur dantzariak, dantzan

Inguruko herrietako dantzariak eta Irun, Falces, Basurto eta Amurriokoak ere etorri ziren domekan Arrasatera. Guztira 350 ume aritu ziren dantzari. Haurrak ederto aritu ziren dantzan, baina azkenaldiko ohiturari jarraituz arrasatear gutxi animatu zen dantzariak etxera bazkaltzera gonbidatzen.



Egunean zenbat aldiz lotuko ote dituzte oinetakoak dantzariak!



Zortea dute Lizarraldetarrek. Etxetik mugitu gabe dantzak ikusi.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

ASTELEHENA
23

Sua, Salbea eta Akelarrea

Denetarik izan zuen San Juan bezperak. Arratsaldea ondo aprobetxatu zuten umeek eta gazteek.

Batzuk bonba japoniarrekin eta buruhaundiekin jolasean, besteak makala altxatzen. Zortziak aldera, San Juan Bataiatzailearen irudia Salbera heldu zen agintarien sorbaldetan. Iluntzean, urteko gau motzenaren majia: Errementari dantza, San Juan sua, tanborrada eta Akelarrea. Suaren azken txinpartekin, dantza eta giroa goizeko lehen errainuak arte.



Oraingoan bai!

Eraz altxatu zuten 400 kiloko makala herriko mutilek. Lehenengoan eta istripu barik, baina hori bai, trikimailu berezi batekin. Soka luze batzuekin, polea pare batekin eta burdinezko oinarriarekin, makala jasotzea erraza izan zen. Asmakizuna beste herrietara exportatu daiteke, eta gainera, oso ikusgarria da.

Zerutik jausitako opariak


Zer ereriko ote da zerutik?

Bonbardaketa izugarria plazan izan zena, baina zaurituak egon beharrean, *sarituak* izan ziren herriko neska mutilak. Japoniatik ekarritako bonbek, goxokiak eta erregaluak ekarri zituzten zerutik.



Danborren zarata

Jo eta ke ibili ziren sukaldariak, eskoziarrak, kantinerak eta bestelakoak tanborradan. Urtero berritzen den ohitura zaharrak ez zuen hutsik egin eta publikoak Zaldibarretik plazaraino jarraitu zuen ikuskizuna.



Dantza arrakastatsua

Tin, ton, tan, errementariak! Ikuskizun polita eta hunkigarria herriko dantzariak eman zutena. Errementari dantzak bere erakargarritasuna erakutsi zuen berriro ere, eta suaren inguruan publiko zabala bildu zuen.



Salbea San Frantziskon

Herriko agintariek eraman zuten San Juan Bataiatzailea Salbe solemnera. Aurtengogan, Frantziskotarren elizara eraman behar, santuaren parrokia obretan dago eta. Hala ere, gustora sentituko zen eliza jendez gainezka zegoen eta.



Akelarrea

Akerraren adarrak! Monterronen bildutako guztiek, akerraren adarrak ikusteko aukera izan zuten. Sorginek prestatutako konjuroari kasu eginez, akerra menditik jeltsi eta akelarrean murgildu zen. Jendea eta Monterron gustoko dituela eta, datorren urtean ere hemen izango dela abisatu zuen.

Santuaren eguna ekintzez beteta

San Juan egunean ez zen atsedenerako denborarik izan. Goizean goiz hasi ziren ekintzek ez zuten etenik izan eguerdira arte: zezenak, meza nagusia, erraldoi eta killikien konpartsa, omenaldia herriko zaharrenei, musika bandaren kalejira eta kontzertua eta abar. Arratsaldeari lasataisun handiagoz eman zitzaion hasiera, baina iluntzerako berriro ekintzak iladan: bertsolariak, kaleantzerkia, dragoi jana, rock-jaialdia, dantzaldia eta su artifizialak. Dragoi janean enpatxatu ez zirenak, izan zuten bai aukera ugari ekintza enpatxatzeko.

ASTEARTEA
24



Autografoak sinatu eta sinatu

Maixa eta Ixiarren dantzaldia jarri zuten San Juan egunerako, baina Ixiarrek izan zuen bai gainerako lanik. ETBko Euskaraokea saioa dela eta, famatu egin zaigu trikitilaria. Horregatik autografoak sinatu eta sinatu aritu behar izan zuen.

Erdi Aroko Dragoi Jana

Denboran atzera egin eta giro berezia eman nahi izan zitzaion aurtengo dragoi-janari. Erretegian prestatutako txuleta piloa jateko (450en bat), eskaera berezia egin zuten antolatzaileek: jendea Erdi Aroko arrokekin joan zedila. Erantzun eskasa izan zuen eskaerak, baina gutxienez antolaketa ibili zirenak jantzi ziren, eta gainera arkulariak ekarri zituzten.

HERRI
LITERATURAZ

IHAR-DUNAL-DIAK.

1997ko
uztailaren 7tik 11ra

Nekazaritza Eskola
DERIO

XXVIII. Derioko Udako
Euskal Ikastaroa

LABAYRU IKASTEGIA

Aretxabaleta, 11


68010 BILBO

Tel: 94 443 76 84

E-mail: labayr01@sarenet.es

Ole!

Mutikote handia da Gaizka Aranegi, eta San Juanetako lehen zezenketan zezena menpean hartzea sartu zitzaion buruan. Behin eta berriz saiatu arren, ezin izan zuen zezena lurreratu. Argi geratu zenez, Orozkoko zezenak Arrasateko idiskoa baino gogorrago! Ondorengo egunetan ez zuen saiakera berririk egin.




Jaietan ere gogoan

Nahiz eta gorputzez hemen egon gura izan, ezinezkoa zaie Arrasateko presoei. Familiakoek eta lagunek kaleratu zituzten egindako mobilizazio ugarietan.



Txokolate gozoa

Ez du normalean txokolateak jende helduaren artean aparteko harrera onik izaten. Kontua, baina, aldatu egiten da heldu horiek gaupasa eginda daudenean. Horrelakoetan ondo ederki estimatzen dute. Pentsa, jende ilada luzeak egiten ziren goizero txokolate lapikoaren inguruan.



Rock-a Jai gunean

Gau batean bai eta bestean ere bai, Jai gunea herriko rock taldeen eta rock zaleen topaleku bihurtu da. Arrakasta dexente izan dute bertan jarri dituzten kontzertuek, jende asko hurbiltzen zen eta. Erritmo gogorren zaleendako ez dago horrelakorik. Makina bat adrenalina botako zuten bai bertan bildutakoek.

ASTEAZKENA
25

Gazteen eta umeen eguna

Gazteen eta umeen eguna ospatu zen asteazkenean. Herriko neska-mutillek era guztletako ekintzak izan zituzten ondo pasatzeko. Balna benetan primeran etxeko txiki-koenek igaro zuten, batetik Txaranga Laru eta Eguzki Laru, bestetik karaokea eta antzerkia eta gainera herri bazkarla euren dako. Badago gehiago eskatzerik?

Gazteek ere mus, partxiak eta futbollen txapelketak izan zituzten Jai gunean. Arratsaldea lagun artean pasatzeko aukera paregabea. Ekintza guztietan jende dexentek hartu zuela parte esan daiteke, beraz antolatzaileek alde horretatik pozik egoteko arrazola badute.

Badator Eguzki Laru

Monterronen agertu zen umeen laguna den Eguzki Laru. Urtean behin etortzen da Arrasatera umeekin jolas eta jolas egitera. Gainera bera etorri eta zerua urdin urdin jarri zen. Neska mutilak denbora zeramaten egun hori itxaroten eta igerri egin zen Eguzki Laruk agerpe-na egin zuenean.



Horiek bai musikoak


Ez dira bandako partaideak, baina turuta jotzen badakite. Horrela tresna ahoan hartu eta kaleak alaitzen ibili ziren neska-mutilak. Zergatik? Eguzki Laru lotan zegoelako eta esnatu behar zutelako. Helburua ondo bete zuten. Izan ere, horrelako txalapartarekin nor ez da esnatzen?

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

Zuri Garbiketak
Santana auzoa, 4 etxebaia Tfnoa: 71 48 45 ESKORITATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78



Kalimotxoa eta txololatea, zelako nahastea!

Goizeko 8ak eta arrosatu behar. Argazkiko lagunak oraindik kalimotxoa bukatu barik zuenez eta txololatea hartzeko ordua zenez, zer okurritu?. Samurra, biak nahastu eta barrura!

“Eguzki Laru oso maitatua da”

— Zer moduz umeen eguneko ekintzak?

— Arrakastasuak izan dira. Iaz baino parte hartze handiagoa egon da eta gainera eguraldiaren laguntzarekin dena borobil irten zaigu. Gurasoek ere sekula baino gehiago hartu dute parte, kalejiran, tailerretan... hortxe egon dira. Beraz alde horretatik pozik egon gaitzke.

— Ekintza berrik bai?

— Berrikuntza handienak karaokea eta Txaranga Laru izan dira. Baina bestalde iaz eguraldi txarra egin zuelako herri bazkaria ez zen egin eta aurten jende dexente bildu da Herriko plazan.

— Dena antolatzea neketsua da?

— Badu bere lana, baina gero emaitza ikusita merezi du. Guk ondo pasatzen dugu eta umeek primeran.

Txirrindulariak porrot

San Juan txirrindulari lasterketa 100 laguntik gora hasi bazuten ere, helmugara 35 baino gehiago ez ziren heldu. Zegoen beroa, ezarri zen abiadura eta ibilbidearen gogortasuna izan ziren arrazo nagusiak. Eginbeharrekoa ondo bete Kaiku taldeko Juan Antonio Flechak egin zuen. Sprintean, baina Kataluniarra azkarrena.



Zein gozoa patata tortilla!

Herriko plaza umez bete zen Txatxilipurdik antolatutako herri bazkarian. Neska mutilek etxetik ekarri behar zuten bazkaria, amatxok egindakoa jakina, baina ez pentsa platerrean zerbait utzi zutenik: Dena garbi garbi. Sakela bete ondoren, digestioa egiteko zer hobeto izozkia baino?.




Estibaliz Agirre

OSTEGUNA
26

Hurrengoan gehiago!

Nahiz eta jaien bukaerarako jendearen nekea somatu, arrasatearrek jakin zuten azken egunerako indarrak gordetzen. Herri bazkarian jende asko izan zen, eta arratsaldeko aerobitonak ere erantzun ona izan zuen.

Eguerdi partean jendea Seberon pilatu zen ATBren emanaldia ikusteko. Izarren zaparrada saioa eskaini zuen herriko telebistak, eta umeez umore galanta dutela garbi geratu zen.



Nork antolatu zituen olinpiadak?

Entzierro ostean koadrilen arteko olinpiadak egin behar ziren herriko plazan, baina lau laguneko taldetxo bat azaldu zen bakarrik. Han zeudenetatik inor ez ei zen antolatzaile. Hala ere, lau olinpikoez jakin zuten saria aurkitzen. Maritxuri lorak kendu eta sari banaketa egin! Horrela edonor txapeldun.



Zenbat trikitilari!

Gazteek trikitixa gustoko dute, norren zalantzarik ez dago. Kaleak txiki geratu ziren hainbeste trikitilarekin.



Pisuzko txaranga

Izugarrizko zarata atera zuen txaranga honek. Indarra behintzat ez zaie falta txarangako lagunei.



Gaiteroek izugarrizko martxa dutela!



EZARKI


OINETAKO KONPONKETAK

Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

- Oinetako mota guztien konponketa (kalekoak, kirolekoak, mendikoak...)
- Kremailerak
- Rematxeak, ojalak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantila bereziak
 - Zientifikoki aztertuak
 - Forma anatomikodunak
 - Arazo guztiendako plantilak



Patata saltzailea ere izan zen zezen plazan.



Zortzigarren urtez marmitakoa prestatzera

Jesus, Jeronimo, Mikel eta Jon ondarrutarrak herri bazkari-ko marmitakoa prestatzera etorri ziren. Sukaldariak betikoak, baina eguna lainotsu esnatu zenez badaezpada aterpean egin zen bazkaria: Gazteluondoko patioan. Giroa beti moduan sekulakoa izan zen.



Amerikarrak ATBn

Azken urteetako ohiturari jarraituz ATB Seberon izan da. Aurten gainera, Osaba Tom-en herriko bi lagun kontratatu ditu kamara lanetarako: Pelos eta Urki.



Arrakastatsua aerobic-a

Nork esango zuen, baina horrela da: jende dexente animatu zen aerobic-a egitera. I. San Juan Aerobitona arrakastatsua izan da. Datorren urtean egunero egin behar.



AZKARATE MORRAS PODOLOGIA KLINIKA

Oin arazoak
Haur podologia
Kirol podologia
Biomekanika arazoak
Gari eta onddo tratamenduak
Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak
Kiro-podiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

ORDUA ALDEZ AURRETIK

Uribarri etorbidea, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 79 53 63



Portugaletik inportazioak!

**Prezio ezin hobeak!
Konfiantza osoz!**

**UDAN
MODA
MERKEENA!!!**



Olarte, 6 • Tel.: 79 25 71 • ARRASATE

Zer moduz aurtengo jaiak?



Feliciano Etxebarria
(67 urte)
Jubilatua

Beste urte batzuetan baino okerrago, uste dut giro gutxi dagoela.



Jon Etxebarria
(14 urte)
Ikaslea

Oso ondo, iaz baino hobeto egon dira nire ustez. Gainera beste urte batzuk baino beranduago joan naiz etxera.



Arkaitz Gomez
(19 urte)
Ikaslea

Azterketekin, etxean egon naiz ikasi eta ikasi. Usaindu ere ez ditut egin jaiak.



Zuhaitz Gonzalez
(13 urte)
Ikaslea

Ondo, beste urte batzuetan baino gauza gehiago egon da eta.



Jone Uriarte
(11 urte)
Ikaslea

Ondo, lehen baino hobeto, aurten lagunekin eta irtezen utzi didatenez...



Isabel Valor
(41 urte)
Etxekoandrea

Ez gatzik eta ez berakatzik, apur bat aspergarriak. Jende gutxi ibili da, eta nik nahikoa lan izan dut umeak zaintzen.



Nerea Zenigaonandia
(13 urte)
Ikaslea

Ondo, aurten gauez gehiago utzi didate irteten, eta uste dut giro gehixeago egon dela.



Jaione Gorospe
(16 urte)
Ikaslea

Ni eibartarra naiz, baina esango nuke giro ona ikusten dudala hemen. Amama bisitazera etorri naiz.

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABALETA

■ Yolanda Sagarna

UDALTZAINA



Yolanda Sagarnak bost urte daramatza udaltzain lanetan. Duela 36 urte Tolosan jaio bazen ere gaur egun Arrasaten bizi da, senarrarekin eta bi alabekin batera. San Juan jaietan Yolandak lan egin du baina ostiralean oporrak hartu eta abuztura arte deskantsatzeko denbora izango du.

1. Zein da zure horoskopoa? Virgo.
2. Sinestuna zara? Ez eta bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Bat ere ez.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Zintzotasuna.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Gauza gutxi.
6. Amets bat? Errealista naiz.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gerrak eta gaiztakeria.
8. Gertakizun historiko bat? Ohea asmatzea.
9. Nor miresten duzu? Bereziki inor ez.
10. Zeri diozu beldurra? Ezerri.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Orain dela gutxi pelikula bat ikusten.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Garraibide hobekak.
14. Eta zuri? Oraindik gauza asko.
15. Lanbidez aldatzekotan? Beste bat hobea..
16. Arrasateko gustoko toki bat? Santa Barbarako parkea
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Zinemara joan.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Guztiak.
19. Gustoko janari bat? Denak.
20. Liburu on bat? *El Oso cavernario*.
21. Filmerik onena/txarrena? *La lista de Schiller/ Superman*.
22. Musika talderik onena/txarrena? Antton Valverde/ Rock taldeak.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Tercer Milenio/ Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Lorak.
25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Familia zaintzen.
26. Oporretarako toki bat? Extremadura.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Ahutsa kentzea.
28. Gomendio bat? Zintzoa izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Aldaketa gutxi.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

Siti Siti
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

ROTULOS
M2
ERROTULOAK
Tel./Faxe: 76 57 93
B E R G A R A

Lore
Lurrindegia
Olarke kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

ARRASATE
HOTEIA

Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.

• Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

• Gesalibar auzoan baserria salgai. Berritua eta egoera onean. Tel.: 79 97 35. Arratsaldeaz eta gauez.

• Sorluzen apartamentua salgai. Tel.: 79 50 71.

• Etxebizitza salgai Ferixalekuan. Tel.: 79 52 64.

• Larrea plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 26 34.

3. Errentan emateko

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailen. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

• Torreviejan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

• Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

• Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrean kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztaila eta irailean. Tel.: 79 57 31.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herriatik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Alakanten lorategia daukan txaleta alokatzen da uztailen eta abuztuan. Interesatuek dei egin 79 40 01.

4. Errentan hartzeko

• Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

• Pisu handi bat behar da 97-98 ikasurterako. (94) 460 86 48. Lan orduetan.

• Pisu txiki bat alokatuko genuke San Andres edo Musakola inguruan. Irailetik aurrera. Tel.: 79 54 46 Goizean. Eider edo Errukane.

• Abuztuan pisua alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: (945) 44 52 24.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

• Pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 79 90 24 / 77 03 30.

5. Etxe konpartituak

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

• Datorren kurtsoan pisua konpartitu nahiko nuke Leioan. Tel.: 79 38 13. Leire.

• Lan finkoa duen mutilak logela bat behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko Betatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

GARAJEAK

7. Saldu

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

• Garaje itxia salgai Udala plazan. Tel.: 79 97 03.

• Munarren garajea salgai. Tel.: 79 44 07.

• Roneoko etxebizitzetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da. Tel.: 79 51 93.

• Munarren garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 97 03.

LOKALAK

12. Saldu

• Komertzioa salgai. Bi jardunekin. Ondo kokatuta eta interesgarria. Prezioa konkretatzeko. Tel.: 77 13 91.

• Lokal-garajea salgai Erguin kalean. 22 m². Prezio interesgarria. Tel.: 79 18 70.

• Garajea salgai edo alokagai San Andresen. 75 m². Tel.: 79 13 52.

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edo-

zein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokatzen, solariumaz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m². Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

15. Errentan hartzeko

• Rock taldeak lokala alokatu eta konpartitu egingo luke. Tel.: 79 75 90. Oskar.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska euskaldunak dendaren baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

• Emakumea gertu orduka etxeak garbitzeko. Tel.: 77 06 74.

18. Eskaerak

• Gidatzeko karneta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Ordenadorez lan bat pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 79 93 62. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 61 82. Goizez edo gauez 10etatik aurrera.

• Fruta denda baten lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 01 79.

• Neska gaztea eta esperientziaduna behar dugu barra eta jatetxe zerbitzurako. Abuztuan eta irailean. Tel.: 77 01 69.

• Emakume euskalduna behar da ume txikiak zaindu eta etxeko lanak egiteko, baita larunbatetan ere. Tel.: 79 27 27 (lan orduetan) edo 79 70 29.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 45 73. Iluntzeko 8etatik aurrera.

• Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Uztailean OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 69 41. Arantxa.
- Matematika laugarren mailako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke uztailean. Tel.: 77 02 62.
- Laugarren mailako Ekonomia ikasle batek klase partikularrak emango lituzke euskaraz zein erdaraz. Tel.: 79 84 42. Unai.

• Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Tel.: 79 58 22.

• Enpresa zientzian lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 33 23.

• Neska batek udan gitarra klaseak emango lituzke. Tel.: 79 20 24.

• Magisteritzan diplomadunak uztailean klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 35 24.

• OHO eta DBHko klase partikularrak emanten ditut. Esperientzia eta merke. Tel.: 79 47 35.

• Neska euskaldunak udan klase partikularrak emango lituzke. OHO, REM,

edo BUP. Tel.: 79 51 19.

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira uztailean. Tel.: 79 79 12.

21. Eskaerak

• Uztailean ingeleseko mintza praktikako egiteko irakaslea behar dut. Tel.: 77 05 00 / 79 02 11. Kepa.

• Soziologjako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituzke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

MOTORRA

23. Saldu

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55 neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000

km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

DENETARIK

26. Saldu

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezin hobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatuta barik dagoen sofa-oheta salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79 14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

31. Galdu

• Ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu nituen. Tel.: 79 28 44.

Maiatzaren 28an betaurrekoak galdu nituen. Metalikoak dira, gorriak. Tel.: 79 85 25.

• Urrezko belarritako bat galdu nuen Erdialdean. Perla zuritxo bat du. Eskertuko da. Tel.: 79 27 74.

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

• Kotxeko gasolina tapoia eta kotxeko giltza galdu ditut Meca gasolindegian inguruan. Tel.: 79 80 25.

• Erdialdean belarritakoa galdu dut. Urrezkoa, bi perla berde ditu eta zortzi txuri. Balio sentimentala du. Eskertuko da. Tel.: 79 56 42.

32. Aurkitu

• Urrezko pultsera bat aurkitu nuen larunbatean Sebero inguruan. Izena eta data jarrita dauka. Udaltzaingora deitu.

• Erloju bat aurkitu nuen azokan. Tel.: 79 52 82.



**ZUZEN ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

Bukatu dira aurtengo San Juanak eta Arrasate

Pressek, argazkien bidez eskura jarri dizuete jai hauen irudirik politenak. Orain dela urte batzuetakoekin gauza bera egitea bururatu zaigu, argazkiak jarri eta norberak konpara dezala.



Urtea: 1950-60.

Argazkia: J. M. Lasagabaster

Aurrezkiaren fruituak

Egin ezazu ezarpen bat Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan eta berehala jasoko dituzu zure aurrezkien fruituak.

Tumbona •
150.000 pezeta
6 hilerako
300.000 pta. 3 hilerako

Vajilla
19 pieza-ko porzellanazko bakera
150.000 pezeta
12 hilerako
300.000 pta. 6 hilerako

3 pieza-ko fagaroi ehize-sorta
24cm, 20cm, 14cm
250.000 pezeta
12 hilerako
475.000 pta. 6 hilerako

Eskaintza bateratua
450.000 pta. 12 hilerako

Izakinak bukatu arteko eskaintza.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ekainak 28, Gay eta Lesbianen Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

UZTAILAREN 4an ANTZERKIA

"LA MATANZA". Antzezleak: Gazte Gay
Amaia antzokian, gaueko 10.30etan



Sexualitate Bulegoa ■
ARRASATEKO UDALA



Amodioa azken finean... LA MATANZA.

**Kanping dendeak eskaintzen duten prestakuntza
berrienetan aukera zabalena hementxe daukazu.**

Arrasate Kirolak, zure kirol denda!




ARRASATE
KIROLAK

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT.

Kontzeziño kalea,8. ARRASATE Tel:794612/771247

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak...

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea. 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42

FAGOR

